2024ko uztaila 90. alea

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



Kaixo herrikide!!!

Ez badirudi ere, iritsi zaigula uda! Eta ohi bezala, oporrak hartu aurretik azken bi hilabeteetan herrian gertatutakoak eta datozenak bildu ditugu uztaileko ale honetan. Ezin ahaztu San Pedro festak pasa berri direla. Hori horrela, argazki bilduma bat egin dugu.

Bestalde, Garagardo Azoka izango dugu berriz asteburu honetan. Aipatzekoa da baita ere, Igeldoko TETaren sorrera atzeratzen ari dela. Informazio gehiago, datozen orrietan.

Udalekuetan gustora dabiltza

Ekaina bukaeran eta uztailan zehar Udalekuak izaten ari dira Igeldon. Hiru txanda izango dira aurten eta guztia kontuan hartuta, 32 umek hartuko dute parte. Hiru txandetako begiraleak ere hainbat izango dira: Maddi, Naiara, Elene, Lur, Harkaitz, Libe, Maialen, Aroa, Telmo eta Malen.

Goizero-goizero ekintza ugari egiten dituzte eta primeran dabiltza giro ederrean. Jolasak, eskulanak, hondartzara irteerak, sukaldaritza, ur-jolasak, tailerrak, ginkana, altxorraren bila, pelikulak, dantza, herri kirolak... ez dute aspertzeko tarterik!

Pilotegi igoko dute Klasikan

Abuztuaren 10ean Donostiako Klasikoa txirrindulari lasterketa jokatuko da eta ohi bezala, Igeldotik pasako da. Oraingo honetan ordea, Murgildik igo beharrean Pilotegitik igoko dira txirrindulariak. Arratsaldeko 16:20 aldera izango da. Ondoren, Donostiarako bidea hartuko dute Zurriolan helmugaratzeko prest. Irteera eta helmuga Zurriolan izango dira.

Edizio honetan, txirrindulariek 236 km egin beharko dituzte, hau da, iaz baino 6 gehiago. 7 mendate puntuagarri igoko dituzte: Andazarrate, Azkarate, Urraki, Alkiza, Jaizkibel, Erlaitz eta Pilotegi. Esan bezala, azken hori igoera berria izango da Klasikoan, eta Murgil ordezkatuko du. Igoera gogorragoa izango da, izan ere bertako maldak %27rainokoak dira.

Trafikoan izango duen eragina ez du jakinarazi oraindik Donostiako Udalak. Informazio gehiago izatean, Herri Kontseiluak zabalduko du ohiko bideetatik.

Bueltan da Garagardo Azoka uztaila honetan

Asteburu honetan izango da azoka; uztailak 19, 20 eta 21.

Iaz ez zen Garagardo Azokarik egin Igeldon eta azkenekoz irailarekin antolatu zen 2022an. Aurten berriz, uztailarekin batera antolatzea erabaki da. Hain zuzen, asteburu honetan izango da; uztailak 19, 20 eta 21. Eguerdiko 12:00etatik 23:30etara egongo da zabalik. IKO izango da antolatzailea.

Edaria, janaria eta musika

Igeldoko Garagardo Azoka ez ohikoa izaten da, garagardo desberdinak probatzeko aukera izateaz gain, jakiak ere garrantzi handia duelako. Oraingo honetan ere bertako jakiak eskainiko dira: tomatea, gindillak, gazta, hegaluzea, saltxitxak, hirugiharra eta hanburgesa beganoa.

Garagardoen artean, berriz, Xorta, Ama-Ur, Brew & Roll eta beste izango dira.

Bestalde, musika eskaintza ere egongo da: Selektah Stepi, Son de hoy, Sweet Sara & Ps Kahuna eta Esther Sound Sister.

Antolatzaileek dei egiten diete herritarrei eta ingurukoei azokara gerturatzeko bertako edari eta jakiekin gozatzera.

Ikastaro berriak proposatzeko garaia da

2024-2025 ikasturteko ikastaroak antolatzen irailean hasiko dira eta orain da ikastaro berriak proposatzeko momentua. Aurreko ikasturtean bezala, honako ikastaroak egongo dira aukeran ziurrenik: joskintza, balleta, gitarra, pianoa, trikitixa, panderoa, musika tailerra, frantsesa, ingelesa, euskal dantza, break dance, yoga, mintzapraktika eta euskara ikastaroa. Azken hiruhilekoan kickboxing ere eskaini zen.

Matrikulazioa iraila hasieran egin beharko da (irailean egingo da deialdi zehatza). Proposamenak egiteko edo zalantzak argitzeko idatzi hona: ieltxokulturelkartea@ymail.com.

Euskal dantza, frantsesa eta musika tailerrean irakasle bila

Aldaketak ere izango dira euskal dantzan, frantsesean, musika tailerrean eta yogan. Mikelek, Aizkorrik, Gurutzek eta Sofiak ez dute jarraituko. Hori horrela, irakasleak behar dira euskal dantza, frantsesa eta musika tailerrerako. Yogan lortu da irakasle berria; Ritak ordezkatuko du Sofia. Interesa izanez gero, jarri harremanetan Ieltxora idatziz.

Emanaldia

Ikasturte bukaerako emanaldia izan zen ekainaren 20an. Hainbat ikastarotan ikasleek ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten.

Pianoa, balleta, musika tailerra, break dance, trikitixa eta panderoko ikasleek eman zuten emanaldia.

Entitate Txikiaren sorrera atzeratuta

Apirilaren 14an egin zen Tokiko Entitate Txikiaren inguruko herri galdeketa Igeldon. Emaitza aldekoa izanik, Donostiako Udalak Foru Aldundira bidali zuen espedientea apirilaren 19an beronek eraketaren inguruko erabakia hartu zezan. Ekainaren 4an, ordea, Igeldoko TETa eratzeko espedientea osatzeko errekerimendua jaso zuen Donostiako Udalak, hainbat zehaztapen falta zirela eta. Ordutik, Donostiako Udal teknikariak zeregin horretan dabiltza, ahalik eta azkarren osatu eta Foru Aldundira bidaltzeko berriz espedientea.

Honek guztiak atzeratu egingo du TETa sortzea eta ez dago argi noiz izango den.

Herri Batzarra, aurrerago

Herri Kontseiluak jakinarazi du Herri Batzar bat deituko duela informazio osatuagoa emateko eta zalantzak argitzeko. Ez du datarik zehaztu oraindik, baina ziurrenik irailean izango da.

'Ukimenez' ikastaroa antolatu dute jubilatuek udazkenerako

Eguna eta ordua zehazten dituztenean jakinaraziko diete bazkide guztiei.

Urrian hasi eta abendura bitartean "Ukimenez" izeneko ikastaroa antolatu dute Jubilatu elkartekoek. Ikastaroaren helburuak honakoak dira: mina arindu, lotura emozional eta soziala landu bakardadearen eta isolamenduaren aurrean, malgutasuna eta mugikortasuna handitzea, zirkulazioa hobetzea, estresa eta antsietatea murriztea, loaren hobekuntza, inmunitate sistema indartzea...

Helburu horiek lortzeko, honakoa egingo dute ikastaroan zehar: zure burua eta besteak ezagutu, beroketak, mugimendua, adierazpen emozionala landu, masajea eman aurretik nere buruarekin ondo sentitzen ikasi, automasajea eta besteei masajea eman.

Hau dena modu ludikoan, errespetuz, ikasiz, gozatuz eta komunitatean partekatuz egingo dela azaldu dute.

Giza harremanak indartu

Ikastaroa emango duena Maria Fernandez Ezeiza izango da eta berak honakoa adierazi du: «Modu honetan epaiketa ez da sartzen eta norbera eta besteak entzuteko gaitasuna areagotzen da. Garrantzitsuena ez da mezuari buruz ulertzen duguna baizik eta gure gorputzean eragiten dituzten sentsazio eta emozioak. Sentsazio horiek, beste pertsona batekin, ispilu bihurtzen gaituen eta egiazkotasunez nor garen eta nolakoak garen helarazten digun beste gizaki batekin aurrez aurre gertatzen dira. Ondo bideratutako sentsazio horiek giza harremanak indartu eta erraztu ditzakete hitzezko ulermenik ez dagoen kasuetan».

Eskolako jaialdia eskainita, oporrak iritsi dira

Eskolako umeek ekainaren 21ean agurtu zuten ikasturtea eta aurretik, eskolako jaialdia ospatu zuen eskolako komunitate osoak.

Ekainaren 8an izan zen jaialdia, frontoian. Haur Hezkuntzako ikasleek "Munduko dantzak" izeneko abesti batekin dantza emanaldi bikaina eskaini zuten, eta Lehen Hezkuntzako ikasleek Olinpiada berezi batzuk antolatu zituzten. Ikuskizun paregabea izan zen eta asko gozatu zuten denek. Emanaldiko argazkiak ikusgai jarri dituzte eskolako web orrian, "Ikasleen Argazkiak" atalean.

Ondoren bi bideo jarri ziren denek ikusteko: ikasturtearen laburpen-bideoa eta aurten eskola utzi duten 6. mailako ikasleentzako agur-bideoa. Hain zuzen, Pagoa, Amaiur, Irati, Aiert, Unai eta Adur agurtu zituzten. Bideo horiek ere ikusgai jarri dituzte.

Eguna bukatzeko Guraso Elkarteak bazkari goxoa antolatu zuen eskolako komunitate guztiarentzat. Primerako eguna pasa zutela adierazi dute. Orain, datorren ikasturterako pilak kargatzeko, oporrekin gozatzeko garaia iritsi da!

Ehundik gora herritarrei eskerrak

Uztailaren 11n afari-merienda txiki bat eskaini zuen Herri Kontseiluak festetan laguntza emandako herritarrei eskerrak emateko. 40 lagun inguru elkartu ziren plazan. Dena dela, aurten ere, festetan lanean eta laguntzen aritutakoak ehundik gora izan direla jakinarazi du Herri Kotseiluak eta oso eskertuta azaldu da. «Festak primeran eta giro onean joan dira eta zuei eskerrak izan da!».

UDABERRI JAIA

Aizkora jaialdiak ikusmina sortu zuen

Udaberri Festa ospatu zen maiatzaren 11-12ko asteburuan eta Aizkora eta Harrijasotze Jaialdiak ikusmina sortu zuen. Giro polita egon zen plazan. Aizkoran, Arkaitz Etxebeste igeldoarra eta Iker Vicente nagusitu zitzaizkien Ibai Soroa eta Ugaitz Mugerzari eta harrijasotzen Udane Ostolazak erakustaldi ederra eman zuen. Horrez gain, bizikleta eta patin roller zirkuituak, “Bizkarsoro” pelikularen emanaldia, Gailurretik Euskal Reggae Selektion saioa, azoka, “Antxuak Balia” bertso musikatuak, San Isidro Eguneko afaria eta poltsikoko antzerkia antolatu ziren. Eskaintza zabala izan da aurten eta pozik dira Udaberri Festako kideak.

AMEZTIKO FESTAK

Denek gozatzen duten festa

Ameztiko Festak apirilaren 25ean ospatu ziren, aurten, bigarren aldiz. Jaia Buenavistan hasi zen eta hasiera emateko bertso bat eta hitz batzuk eskaini zizkieten Buenavistako familiari, oroitzapen ahaztezinak utzi eta denon etxea izan dela eskertuz.

Ondoren ibilbideari ekin zioten trikitixak lagunduta: Amezti zarren barrenea eta haur jolasak, Amezti baserrian toka, Itsaso etxean altxorraren bila eta harrobi zarren aperitiboa eta kontzertua Alvaro Modregoren eskutik.

Ibilbidea Buenavistan bukatu zen eta bertan bazkari ederra egin zuten.

Arratsaldean plastiko erraldoi batekin eta urarekin jaitsiera egin zuten eta gozatu ederrak hartu zituzten haurrek... baita heldu batzuek ere!

Bitartean, zelaiko eszenatokian, Sweat Sara & ps Kahuna izan zituzten eguna borobiltzeko.

Ateratako dirua Jai Batzordeari eman zioten herriko festak bultzatzeko.

ESKOLA TXIKIEN FESTA

60 lagun Igeldotik Adunara

Oraingo honetan, Adunan ospatu zen Eskola Txikien eguna ekainaren 16an. Igeldotik autobusez joan ziren gehienak eta egun paregabea pasa zutela azaldu dute Guraso Elkartetik: «Herria zoragarria eta antolaketa bikaina, ezin gehiago eskatu. Igeldotik 60 pertsona elkartu ginen bazkaltzeko eta antolakuntzatik esan zutenez, talderik haundienenetakoa ginen. Beraz eskerrik asko denoi zuen parte hartzeagatik!!! Hurrengo urtean Ezkio Itxaso izango da antolatzailea eta bertan ikusiko geralakoan, ondo pasa oporrak!!!».

Eguraldi txarrik ez festarako

Euriak eta euri arriskuak baldintzatu ditu zertxobait festak, baina hala eta guztiz ere, jendea ez da etxean geratu. Festarako gogoak irabazi du eta giro ederrean joan dira aurtengo San Pedroak.

Ekainaren 22tik uztailaren 2ra adin eta gustu guztietarako ekintzak egon dira aurtengo San Pedroetan eta euriak zertxobait baldintzatu baditu ere, giro onean eta herritarren partehartzearekin joan dira. Herritarrek emandako laguntza ere handia izan da.

Boletoetako saridunak

Festetako boletoak ere atera dira aurtengoan eta honakoak izan dira zenbaki saridunak: 1. saria 30 zenbakia, 2. saria 80 zenbakia eta 3. saria 130 zenbakia.

Ohi bezala, festetako ekintza desberdinekin argazki bilduma bat osatu dugu datozen orrietan. Ea gustatzen zaizuen!



Eneritz Beraetxeren portada

Urtero bezala, festetako egitarauaren portada aukeratzeko Argazki Lehiaketa antolatu zuen Jai Batzordeak. Aurten, Eneritz Beraetxe izan da irabazlea eta bere lana izan da festa hauetan ikusi dugun irudia: hiru lanperna erraldoi. Beraetxek 100 euroko saria ere jaso du. Zorionak!

JAI BATZORDEAREN BALORAZIOA

Igeldoko Ttonttorro Jai Batzordeak egin du aurtengo jaien balorazioa jada eta festak positiboki baloratzen ditugu, izan ere, eskaintza anitza izateaz gain, egin diren ekintzetan partaidetza altua izan da. Herritarrei eskerrak eman besterik ez zaigu geratzen egin duzuen lan guztiagatik: kirol ekintzak, haurrentzako askotariko jarduerak, San Juan sua, San Juan eta Santa Ixabel eskeak, dantza eskaintza ezberdinak, barrako nahiz afariak emateko turnoak, ginkana, idi eta zaldi demak, gazte eguna, aurreskua,... Zuen partaidetza gabe ezinezkoa litzateke eskaintzen den programa zabala eskaini eta aurrera ateratzea, beraz, beste urtebetez, eskerrik asko. Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi jendeak urtez urte jartzen duen dirua herriko jaiak aurrera ateratzeko, mila esker zuen etxetik igaro garenean hartu gaituzuen goxotasun eta laguntzeko izan duzuen asmo guztiagatik, zuek gabe, ezinezkoa litzateke.

Askok jakingo duzuen bezala, aurten talde berri bat aritu gara herriko jaiak aurrera ateratzeko lanetan. Ilusio osoz, lan handia egin dugu hauek aurrera ateratzeko, eta pozik gaude lortutakoarekin. Hori horrela izanik ere, hobetzeko asko dugula ere konturatu gara eta honetan lanean jarraitzeko asmoa dugu datorren festei begira. Honekin lotuta, gurekin batera jaiak antolatzera gonbidatu nahi zaituztegu, gero eta talde anitzagoa izatea gustatuko litzaigukeelako, bai zaletasun eta baita adinari begira ere, uste baitugu, honek emango diola aberastasuna herriko jaiei. Amaitzeko esan, zabalik gaudela zuen iritzi, gomendio eta iradokizunak entzutera eta horretarako, emailera idazteko aukera izateaz gain (ttonttorro@gmail.com) edozein bileratara gonbidatuak zaudetela.

Mila esker eman duzuen guztiagatik eta jaiak gozatu dituzuela espero dugu. Udara zoragarria opa dizuegu! Gora Igeldoko jaiak!

Hamabost bai!

Jai Batzordeak erronka bota zuen aurtengo Igeldoko igoeran baietz 15 igeldotar atera eta horixe lortu zen! Justu, baina 15 herritarrek hartu zuten parte 42. edizio honetan. Denera, 53 korrikalarik egin zuten Ezeizatik Polipasorako bidea eta oraingo honetan ere, Aitor Etxeberria igeldoarra izan zen azkarrena (0:25:14). Gizonezkoetan, Xabier Lukin geratu zen bigarren (0:25:38) eta Imanol Bellido hirugarren (0:27:43). Emakumezkoetan, Elena Silvestre helmugaratu zen lehendabizi (0:29:13) marka berria ezarriaz. Nerea Egia izan zen bigarren (0:31:04) eta honek ere ordura arte zegoen marka hobetu zuen. Elena Beristain izan zen hirugarren (0:33:59). Sekulako maila egon zen emakumezkoetan. Aurreneko igeldoarren sariak Joritz Etxeberria (0:28:46) eta Maddi Cenzanorentzat (0:41:28) izan ziren.

Kros txikia ere egin zen goizean eta horrela geratu ziren sailkapenak:
HH mailan, Elur, Luka, Elorri;
LH 1-2 mailan, Oxel, Orhi, Iker;
LH 3-4 mailan, Lizar, Kattalin, Unax;
eta LH 5-6 mailan, Amaiur, Haitz.
Esfortzu handia egin zuten denek eta hamaiketako ederra izan zuten ondoren!

Sorginen bisita

Aurtengo San Juan sua benetan magikoa izan zen. Zazpi sorginen bisita jaso zuten suaren inguruan bildutako herritarrek eta momentu eder eta indartsuak bizitu ziren.

Aurretik, umeek txaparroak prestatu zituzten ondoren sutara botatzeko eta fajitekin afari-merienda egiteko aukera ere izan zen beste urte betez.

Sua piztearekin batera, San Juan eskeko kuadrila ere martxan jarri zen eguraldi kaxkarrari aurre eginez, etxez etxeko ibilaldia egiteko prest.

Musika eskaintza zabala

Ekainaren 28an hasi ziren ofizialki festak. Arratsaldean, ginkana mundiala izan zuten herriko umeek eta gogotik gozatu zuten ariketa eta proba desberdinekin.

Festei behar bezala hasiera emateko, Ttonttorroren igoera egin zen TET batzordeko kideen eskutik.

Egunari ginda musikak jarri zion; izan ere, musika eskaintza zabala izan zen. Arratsaldean, Antiguaband txaranga ibili zen herria girotzen eta gauean lau talderen kontzertuak eskaini ziren: Rukula, Corrugators, La Txama eta Herenegun. La Txamaren estreinako kontzertua izanik, ikusmina sortu zuen eta Herenegunek erakarrita ere, jende ugari gerturatu zen plazara. Parrandarako aitzakia soberan izan zen!

San Pedro eguna eta larunbata

Goizean mezetara joan zirenek ez zioten nahiko errezu egin nonbait San Pedrori eta eguna nahasi samar joan zen eguraldiari dagokionez. Ondorioz, toka eta bolo lehiaketarik ez zen izan, baina gainerako ekintzak aurrera atera ziren.

Din-dinek eskainitako hamaiketakoarekin indarrak hartu ondoren, herri kirolen txanda izan zen. Herriko gazteak eta ez hain gazteak lehiatu ziren Arkaitz Etxebeste eta Ugaitz Mugertza aizkolarien laguntzarekin eta ez hain gazteak nagusitu ziren.

San Pedro eguna larunbatez tokatu zen eta ez zen ohiko formatuko herri bazkaririk egin. Horren ordez, Desheredatuen II. Bazkaria antolatu zen, paella lehiaketa bidez. Txus, Iñaki, Birjinia, Iñigo eta Arantxaren paella izan zen onena.

Arratsaldean, euskal dantza emanaldia eskaini zuten herriko dantzariek eta ikuskizunarekin liluratuta geratu ziren gerturatutakoak. Maila dagoela Igeldon!

Ohi bezala, idi demaren txanda ere izan zen iluntzean. Igeldoren idi parea nagusitu zen 54 plaza eginda. Bixkien idiek 51 plaza, zinta 1 eta 95 zentimetro egin zituzten.

Gauean, Trikidantz taldeak eta DJek jarri zuten parrandarako bidea. San Pedro eguna eta larunbata, aprobetxatu beharrekoa!

Bestalde, Goizuetako koadrilla baten bisita ere izan genuen goizetik eta egunari haiek jarri zioten gatza eta piperra. A ze martxa!

Igandea lasai

Patata tortilla lehiaketarekin hasi zen igandea. 11 herritarrek hartu zuten parte eta Iñaki Aizpuruaren tortilla izan zen nagusi.

Ondoren, herriko jubilatuek girotu zuten plaza kantujirarekin. Donostiako beste taldeetako kideak ere gerturatu ziren Igeldora.

VI. Oliba Jaitsiera Txapelketa ere egin zen eta Oier Galarraga eta Nora Galindo izan ziren saridunak.

Arratsaldean, Iker Artanoren oroimenezko txapelketaren finalak jokatu ziren. Batetik, neskak aritu ziren teniseko pilotarekin eta bestetik, mutilak mazizarekin. Honakoak izan ziren finaleko emaitzak: Maddi-Maddi 23/Ixiar-Jasone 25; Josu-Txube 22/Onditz-Aratz 30.

Esku pilota jaialdia ere izan zen pilota eskolak antolatuta. Aspaldiko partez, mutil afizionatuen txanda izan zen. Partidu parekatu baten ostean, azkeneko emaitza Igoa-Apezetxea 22/Murua-Albeniz 20.

Igande lasaiari amaiera emateko, bertso-saio musikatua eskaini zen.

Umeen eta Gazteen eguna

Astelehena, Umeen eta Gazteen eguna izan zen. Txikienek Ttonttorro txiki igoz hasi zuten festa eta egun osoan ez ziren geratu:
tailerrak, bazkaria, puzgarriak, merienda, kalejira...

Pelota eskolan dabiltzan umeek saiotxoa ere egin zuten ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsiz. Elaia eta Ibai nagusitu ziren.

Gaztetxoek "Altxorraren bila" jolasa izan zuten zaharragoek antolatuta. Igeldotik barrena ibili behar izan zuten altxorra topatzeko eta ez zen erraza izan. Asko gozatu zuten denek!

Gazteek berriz, frontenis girotua, bazkari koloretsua, jolasak eta karro poteoa egin zituzten. Giro ederrean ibili ziren!

Santa Ixabel eskeko kuadrilla ere atera zen etxez etxe dantzan. Eguraldiak lagundu ez arren, gustora ibili ziren.

Dantza eta dantza

Hurrengo egunean burukomina ez bazen, agujetak seguru! Santa Ixabel egunarekin bukatu ziren festak eta azken egunak dantza dakar berarekin, ohitura den bezala. Oraingoan ere, irudi ederrak izan genituen festak agurtzeko: adin desberdinetako herritarrak elkarrekin dantzan jo eta su Izer eta Alabierrek jarritako trikiti doinuei jarraituz.

Aurretik ere, dantzak izan zuen protagonismoa, baina besterik ere izan zen. "Legea gu gara" antzezlanaz gozatzeko aukera izan zen arratsaldean. Ondoren, plaza dantzak, kalejira eta Ttonttorro txikiren jaitsiera izan ziren.

Santa Ixabel eguna izaki, zaldi demak ez zuen hutsik egin eta Aitor Manzisidorren zaldiak irabazi zuen 84 plaza, zinta 1 eta 95 zentimetro eginda; Juan Jose Aginagalderen zaldiak 84 plaza egin zituen. Lehia estua izan zen.

Festak agurtzeko, Aurresku Herrikoia egin zen eta Ttonttorro jaitsi zen hurrengo urtera arte.

Eta indarrean zeudenek dantza eta dantza jarraitu zuten goizaldera arte.

Bestalde, euriagatik apar festa hurrengo egunera atzeratu zen.

IGELDO HERRI KONTSEILUA

Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfonoa. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com

Laguntzailea Donostiako Udala